

TOLOSAKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA
2014ko abenduaren 17an.

BATZORDEKIDEAK:

Lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bokalak:

Jokin Azkue (EAJ)

Angel Yañez (PP)

Larraitz Bernedo (Erretengibel, S.A.)

Aitor Iztueta (Bildu)

Hasier De los Rios (Ingurumena, Garapen Ekon..)

Lore Agirre (Hirigintza Herri Azpiegiturek)

Aholkulariak:

Angel Uranga (Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Departamentuko burua)

Tatiana Ramirez (Udal Arkitektoa)

Mikel Iriondo (Plan Orokorren berrikuspenaren arduraduna)

Idazkaria:

Garikoitz Lekuona

Tolosako Udaletxean, 2014eko abenduaren 11an, goizeko 8:15etan, Tolosako Udal Plangintzako Aholku Batzordea bildu da, Ibai Iriarte jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipatu diren batzordekideen partaidetzarekin, eguneko gaiak jorratzeko asmoz.

Ez dira bertaratu:

- Iker Karrera (Tolomendi)
- Enrique Torquemada (Aralar)
- Jose Ignacio Asensio (PSE-EE)
- Jon Arregi (Arkitektoen Elkargoa)
- Oskar Soto (Eskola Agenda 21)

PLAN OROKORRAREN ERREBISIO
PARTZIALARI DAGOKION
AURRERAPEN DOKUMENTUA: SAN
ESTEBAN EREMUARI BURUZKO
EZTABAIDA (I)

DOCUMENTO DE AVANCE DE LA
REVISIÓN PARCIAL DEL PLAN
GENERAL: DEBATE SOBRE EL
ÁMBITO SAN ESTEBAN (II)

Garikoitz Lekuonak abenduaren 11ko saioan aipatutakoen laburpena egin du eztabaida utzitako puntuan kokatze aldera.

Jarraian Ibai Iriartek hitza hartu du. Nahiz eta ados egon, ez du uste alokairuzko etxebizitzak bai ala ez eztabaidarako unea denik. Gai hau Eusko Jaurlaritzarekin landu beharreko gaia dela dio. Bere ustez eztabaidarako gakoa une honetan San Estebanen zer mantendu eta zer ez litzateke, kontuan hartuz bizitokiak eta aktibitate ekonomikoak bat egin beharko duten esparruaz ari garela. 400-500-600 etxebizitza planteatzea zilegia izan daiteke baina beti ere Tolosaren

errealitatearen argazki osoa kontuan hartuz, hau da, egun garatu gabe edo garatzeke dauden eremuak kontuan hartuz. Unipapel 1. fase batean mantentzearen alde azaltzen da.

Jokin Azkuek dio 1.000 etxebizitzako ideiarekin atzera egiteko inolako arazorik ez dutela. Planteatzen zen trenbide azpiko pasoa egun ekonomikoki posible ez dela dio, karga ekonomiko handia suposatzen bai zuen eta beraz, karga hau kenduz, dentsitatea ere jeitsi egiten da. Plan orokorra tresna dela dio eta ez helburua. Beraz, dauden kargak baloratzearen alde azaltzen da eta eta horren arabera bideragarritasun ekonomikoa egitearen alde.

Alogerako etxebizitzetara dagokionez, Kondeaneko Aldapa 11ko kasuan %15ko aprobetxamenduarekin egin bezala, San Estebanen ere, % 60^a udalarena izanik, egin daitekeela uste du. Behar den muskulua ematen dio horrek. Zenbakirik egin gabe ez dute aterik itxi nahi, ez dute aukerarik galdu nahi.

Ibai Iriarteren ustez "muskulua" ez du Udalak, Eusko Jaurlaritzak baizik, eta urterik onenetan Udalak ezer gutxi egin badu maila horretan, are gutxiago egungo kontestuan. Errepartzelazio proiektuarekin batera hartu beharreko erabakiak planeamendu arloa ez ote ari garen eramaten galdegiten du.

Mikel Iriondok uste du, eztabaidatik ondorioztatu daitekeela adostasuna badela 8. alternatiba baztertzean eta Bonberoenea eta Feriala

mantentzearen aldeko ideian.

Prozesu batean murgilduta gaude eta prozesu horren baitan fase bakoitzean erabaki bat hartu beharra dago. POrain erabaki estrukturalen unea dela dio.

Jarraian, alogerako etxebizitzan eta bideragarritasunaren gaiari eutsiz, gaia lantzeko 2 aukera daudela adioerazi du:

1- Aprobetxamenduaren banaketan udalari hainbat partzela, bere eraikigarritasunarekin, esleitzen zaizkio eta gerora udalak erabakitzen du zer egin partzela horiekin, beste partzeletan eragin gabe. Hau da, bere partzeletan bere politika aplikatuz eta ez besteetan.

2- Errepartzelazio unean kontuan hartzea alogeraren gaia, helburu batzuk lortze aldera. Oso konplexua eta zaila dena eta Jokin Azkuek aipatutakoaren ildotik doan aukera.

Jokin Azkuek lehenesten duen aukeraren aurrean Aitor Iztuetak dio paperak dena aguantatzen duela. 10 urtera begirako planteamendu posibilibata egin beharra dagoela dio. Libreak saltzen ez badira, nola garatu ahalko dira aplokairuzko etxebizitzak?

Gehienak ados azaltzen dira, karga guztiak aintzat hartuz, bideragarritasun azterketa sakonagoa egitearekin. Ahalik eta argazki errealena egin eta horren baitan nolabaiteko fasekako garapen aukerak aztertzeke ere.

Angel Urangak ohartarazi du, kargen gaiari lotuta, udal gobernuak konpromezua hartua duela San Estebaneko bizilagunekin, besteak

Angel Yañez cree que nos estamos dejando llevar por ideas fijas. Y que realmente nos debería de preocupar, a su entender por ser la idea central, como hacer para que San Esteban sea parte del pueblo; es decir, permeabilizar el paso entre ambos ámbitos. Lo cual requiere de la

beste, irisgarritasuna hobetzeko, errealojoen gaiak pisu handia duelarik ere, eta abar...eta ondorioz azterketan aintzat hartu beharko direla horiek guztiak.

ejecución de un gran número de viviendas (1.060 viviendas). Pues con el desarrollo del ámbito se incrementará el tráfico y los pasos actuales serán insuficientes.

Amaitzeko Angel Yañezek dio aurre erabakien arabera jolasten ari direla. Ahaztuz San Estebanek duen arazo nagusienetakoa herriarekiko lotura dela. Horregatik beharrezkotzat jotzen du 1000 etxebizitza eraikitzeak aukera bere horretan mantentzea, irisgarritasun kargak bideragarri egiteko. Etxebizitza garapenak mugikortasun garapena dakar berekin eta ibilgailuen kopuru handitzea.

HERRITARREN PARTE HARTZE PROGRAMAREN ONARPENA

APROBACIÓN DEL PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Herritarren parte hartze programa onartu egiten da eta ondorioz 2 hilabeteko esposaketa epea zabalduko da iragarki ofiziala Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Se aprube el programa de participación ciudadana y consecuentemente se abrirá un periodo de exposición pública de 2 meses a partir de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

GALDERA-ERREGUAK

RUEGOS Y PREGUNTAS

Ez dago.

No hay.

Besterik gabe, goizeko 9:50ak direnean saioa amaitutzat eman du aholku batzordeak.

BATZORDE LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

Ibai Iriarte San Vicente

Garikoitz Lekuona